



Agirresakona (-a)

etxebizitza

Aldaerak:
Ahozkoa: Agérresakon



43° 10' 48"

2° 32' 59"

Berriz Iruditan / J.A. Ramos

"... la casa llamada Aguirresakona... radicante en jurisdicción de la Anteiglesia de Berriz [Cofradía de San Lorenzo], y comprende su planta solar cuatrocientos cincuenta y ocho metros, la que consta de dos viviendas componiéndose de planta baja principal y desban; la planta baja consta de dos cocinas, cuerdas, cuartos y tejabana; el piso principal de cuartos..."

DJE, 5/ 14. or. (1881)

Berriz eta Zaldibar arteko mugan eraikitako baserria da. XVII. mendean topatzen dugu lehen arrasto dokumentala, hots, *Aguirre sacona* (1662, BAHF, A225/32. or.), eta hortik aurrera, dokumentazioan ia aldaketarik gabe mantendu da: *Aguirre Sacona* (1796, Bizkaiko su-errolak), *Aguirre-Sacóna* (1859, BUA, Nmcr) eta *Aguirresakona* (1967, BUA, CE). Berriztarren artean, *Agirre* (**Ikus Agirre**) baserriarekin gertatzen zen moduan, *Agérre* ahozko eratik abiatuta *Agérresakon* dokumentatu dugu.

Eraberritze handia izan du baserriak, eta jatorrizko elementu batzuk baino ez ditu kontserbatzen gaur egun. Eraikinaren neurri eskergak

eta taxuketak aldi desberdinetan egindako handitzeen berri ematen digute, eta bereziki harrien tailu diferenteek eta fatxaden tratamenduak hala aditzera ematen dute. Elkarren ondoan dauden bi etxe badirudite ere, argazki zaharrei esker, badakigu etxe nagusia ezkerraldekoa zela, XVII. mendean hedatutako estiloan jasotakoa.

Beranduago, eskumaldea handitu egin zuten, atxikitako etxe baten itxura emanaz, teilatu eta guzti. Harrigarriena da etxe berriak teilatuaren isurki bat ohiko eran eginga duela, eta bestea urez betetako estalki lau dela, fabriketan XX. mende hasieran egiten hasi ziren horietakoa.

toponimia

Agirre oso arrunta da toponimian eta "agerian" dagoen leku bat adierazi nahi du. Gure Euskal Herria menditsua denez ia herri guztietan dugu Agirre izeneko etxe bat. Mendebaldean dagoen Agirre Bizkaiko Artzentales herrian dago eta ekialdean Santa Grazin, Zuberoan. Ahoz ohikoa da Agerre esatea baina Bizkaian ahoskera hori nahiko berria da. Iparraldean, berriz, zaharra da eta Agerre deitura D'Aguer moduan frantsestu zen. Deitura honetatik sortu zen Daguerrotipo, egungo argazkien aintzindaria. Beraz, kasu honetan kontrako esangura duten izen bi ditugu sakon berba agirreraren kontrakoa baita.



Agirresakona, 1953, Guregipuzkoa.net/Caserío Aguirresacona © CC BY-SS: Ojangueren, Indalecio.

Ostean horma zaharra dauka, XVI. edo XVII. mendekoa izan daitekeena, eta aurrean bistan utzi dituzte beranduagokoak, aipagarrienak izanik jatorrizko etxearen behealdeko aldamentako gorputzak. Bertako kantalak zein leiho txikiak harlanduzkoak dira, gaur egun itsututa badaude ere. Etxe zaharrak egurrezko dintelarekin hornitutako atarte zabala zeukan, eta hari eusteko egurrezko zutikoa zuen erdian.

Gaineko solairuak zurezko egitura zuen, leiho bi, eta tarteko hormak pintatuta. Ganbaran, berriez, frontalaren formari egokitutako beste leiho bi ditu. Etxe zaharrenaren eta berriagoaren ar-

teko banaketa bistan dago oraindik ere fatxada nagusian, silarrien norabideari erreparatzen badiogu. Gaur egun, leiho, balkoi eta ate berriak zabaldu dituzte, eta egurrezkoa zena hormigoiaz ordezkatu dute, nahiz eta saiatu diren itxura zaharra mantentzen.

Armarriak agerian uzten du etxeak eta etxeokoe garrantzia zutela. Armarri soila zen, harrizko plaka batean zizelkatuta. Bere garaian zutikoaren gainean zegoen, eta burdinazko grapa batzuen bidez lotzen zitzaion egurrari. Egun, fatxadan dago, horman sartuta.